



IDAZKARITZA
IDAZKARITZA
NAZIONALAREN
NAZIONALAREN
TXOSTENA
TXOSTENA

EUSKADI, 3-APIRILA-1.986
EUSKADI,

BATASUN
NAZIONALA



DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 10193



Lesakako "UNION NACIONAL"-ean(U.N.) hartutako erabakiak, Sekretaritza Nazionalaren egintzan izan duten eragina aztertzeraz goaz, zeinak, orain, erakunde osoaren erreflexioaren esku ezartzen bait ditugu, egindako lanaren zuzentasunaz sakontzeko eta batez ere, epe labur eta ertainera begira tuz ezarri genituen helburuen arabera, erakundearen zuzendaritzaren giza errekurtsoen balioari buruz(kopuru, dedikazio eta efikazia) eztabaidatzeko.

Honela, derrigorrezkoa da, partzial eta orokorki, guk autokritikoki, orientabideak dakusagun garapen on eta txarren hornitzea, UN-a izan dadin ondoren, ondorioak ekar ditzakeena.

SEKRETARITZA NAZIONALAREN(UN) FUNTZIONAMENDUA OROKORKI

SN-a, asko hobetu da, bilera dinamiko batzuez osatzean (aldizkakoak eta noiz behinkakoak), erakunde gisa ukitu behar ditugun gai espezifiko eta orokorrak era serioan ukituz.

Akten zehazketa, "Orden del dia"-ren prestakutzak,...eta gai bakoitze-ko erabakia hartzeak,(bozketaz bada ere), efektibitate eta operatibitatez osatu da SN-a, nahiz eta, sindikatu osora hedatu ez arren, SN-an agerleku berezia duen arazo bat jasan: HOMOGENEITATE EZA, Lesakan, ponentzi eta ar-gudioz, barneko ezberdintasunak aski gogorki agertu ziren, ondorioz, SN-aren barnean, oraindik diharduten konponezin eta kontraesanak sortuz.

SN-aren barneko benetazko homogeneitate eza da lanaldi berri honetako faktore garrantzitsuenetarikoa; garbi geldituz DENENTZAT, batez ere sor-tyu diren arazoaren ondorioz, Erakunde osoaren eta SN-aren paper berezia tinkotzeko bide BAKARRA, EZTABAIDA POLITIKO IREKI ETA GARBIA dela, eta noski, Sindikatoaren oinarritzko organu erabakitzaileak, hots, U.N.-k eman dako erabakienganako erabateko errespetua.

Bestalde, makina arazo izaten jarraitzen dugu(kapazitate eza, eta deso-rientabidea direla medio batzutan), garaiz eta zuzentasunez, langile ere-kundearen paper bereziari dagokizkion gai ekonomiko-politikoak ukitzean: EEE-ren sarrerarekiko azalezko tratamendu eta barnekalderako proiektape-nik eza, eta Eusko Jaurlaritzaren Jaurtikitze plangintzarekiko erantzunik eza, GERTA EZINEZKO gaizen bi adibide zehatz ditugu.

LAN TALDEAK

Lesakan sortutako berreraketak, aplikaketa zuzena izan du, Lan taldeak garatutako egintzetan; bakoitzaren analisi zehatz mehatzik egin gabe, mar-txan jarri dituzten arazoak aipatuko ditugu batetik, eta gure ikuspegitik egon hutsak bestetik:

Ekintza erreibindikatiboa

Lan sail honetatik sortutako urratsek, fruitu onuragarriak eman dituzte lan helburuaren atal garrantzitsuetan: Bailara arduradunen tinkotze progresiboa sindikatuaren egituraketa eta eskuhartze bereziaren bitarteko gisa; koordinakuntza nazionala eskatzen duten sektore industrialen jarraipen eta dinamizatzea (Altzairua, Siderurji Integrala, Magefesa, Unión Cerrajera, Nervacero...), dagokien lantegietan borabideak zuzenduaz eta langile arteko edota jende aurreko aktibitateak sortuaz (boletina, artiku luak); Bankan ez ezik, eta eskasa bada ere, beste arloetarako irikitzea, koordinakuntza eta orainarte aski "baztertuak" zeuden zerbitzu arloko interbentzioa (Osasun zerbitzua, Irakaskuntza, Administralgoa...), kontseilaritza juridikoaren antolakuntza guztiaren deszentralizapena; Ikastaro sindikalak egitea delegatuentzat eta bereziak Ekintza Erreibindikatiboko arduradunentzat, lehenengo aldiz, LAB-ek 85-gn urtean egindako interbentzio juridikoaren gutxi-gora-beherako koadroa, txostenak egiten sortu ahi diren hutsegiteak kontutan hartuaz ere, ondorio interesgarriak eman diezazkigukena... eta Hauteskunde sindekalen prestagarri diren bestela "estatistikoak" (ordezkaritza koadroak...).

Hartu dugun esperientzi guzti honen haurrean, ikuspeirik garrantzitsuen duen sektore eta arazo "nazonaletan" eskusartzeko koordinakuntzean, Sindikatuaren hedatze dinamika eta sektore "berrietako" (zerbitzuak) esku hartzea dela eta, gure ezintasuna adierazten dugu, jarraipen zuzena eta Ekintza Erreibindikatiboaren Nazional arduradunen dinamizatze lan egokia egiteko; koordinaduntzan dagoen sektore bakoitzean, gure partehartzea sen doteko, aportazio kreatibitate, komunikazio... eskasa dagoela dakusagu (sektorearen egoerari buruzko txostenak, boletinetarako artikulua, egunkarietarako oharra...), "konpetentzi" gehiegi, leku guztietan batera egon denetaz dena egoki uler ezin dezaketen arduradun Nazional gutxi bartzuren esku utziaz. Bestalde, Osasuna, Irakaskuntza, Administralgoa, Banka ... eta abarrean sartzean, ahaleginak bikoiztu eta BANATZEA suposatzen du, Eusko jaurlaritzak 18 azpisektoreetan egiten ari den jaurtikitza bereziaren plangintzaren ondorio berak, egungo funtzionaketa gehitzea suposatzen digu, espiritu garrantzitsuenarekin hautsi gabe: Sindikatuaren eraketaren kontrola, partehartze bereziaren gainetik.

Zentzu honetan, U.N.-ari, sektore "arduradun edo koordinatuak" aiputan hartzea eskatzen diogu; Militante hauek, nahi eta nahi ez sindikatuaren estrukturaren partaide, Ekintza Erreibindikatiboarekin aldizkako bilereetan parte hartzeaz gain, lantegi koordinakuntza, informazio, egunkari eta boletinetarako artikuluen prestakuntza, ... egin beharko dute, Ekintza Erreibindikatiboko Arduradun Nazionalarekin harreman zuzenetan sartuaz, honela, LAB-ek sektore bakoitzean interbentzio efikaz eta iraunkorra izan dezan. Planteiamendu honek, ez du erabaki eta lanen "lurzati autonomikorik" sor-

tu nahi, baizik eta sindikatuko militanteak, Arduradun Nazionalarekin loturik, erakundearen osotasunerako lanetan aritzea baizik.

Bestalde, egin ditugun eznahikotasun eta hutsegitetan, ahaleginak bikoiztu behar ditugu ondorangoetan: Ekintza Erreibindikatioaren bailarako arduradunak sendotzen, Ikastaro sindikal berezia egiten, koadro sindikalak sortzeko, bailarako arduradunentzat batizbat, traumarik gabeko interbentzio politiko-sindikala homogeneizatu; sindikatua eta aparailu juridikoaren arteko homogeneizakuntzan jarraitu; Zerbitzu arloan sindikatoaren presentzia indartu; Eusko Jaurlaritzaren Jaurtikitze plangintzari erantzun, Sindikatoaren lan egoki baten bidez PNV politikoki "desgastatu" bait daiteke.

Diruzaintza

Diruzaintza komisioak garatutako aktibitateak, helburu "CLAVE" batetan oinarriturik egon dira: Beasaingo UN-ean, anarkia berbideratzeko hartu ziren neurri zuzengarrietatik abiatuz, Sindikatoak DAUZKAN bide ekonomiko, material eta infrastrukturazkoen ezagutza erreal eta puntualen.

Gauza askotan, komisio beraren txostenak direla medio, aurreratu baldin badugu ere(kuoten ordainketa, zuzenbideraketa, Diruzaintza Nazionalaren eraikuntza,...), Sindikatoaren ekonomi arazoaren ikuspegi zuzena baldintzatuko duen akats endemikoa dakargu hots, herrialde arduradunek, txostenak osatzeko duten zailtasuna alegia.

Arrazoi ezberdinengatik (bailarako arduradunen utzitasuna, herrialdeko arduradunen lan ugariak,...), SN-ak ezin du puntualki, gure aurrekontuan bilakaera ikusirik, ezinbestezkoak zaizkion daturik izan, kezka hau, herrialde bakoitzeko egintza aginteek balioztatu behar dute, bestela, diruzaintzaren arduraduna eta SN-a bera, ezintasunez beterik aurkituko bait dira, sindikatuaren "ekonomiaz" neurriak hartu edo txostenak egiteko orduan.

Bestalde, egiaztatu eta aurkeztutako presupostuetan aski isladatzen da ekonomi errealitate erabakikorra dugula: egun, sindikatoa justu-justu, la guntza "ofizial" eta kontseilaritza juridikoaren diru etekinei esker bizi da, LAB eta NAEM-aren zabaltze eta apostu politikoaren(hauteskunde sindikalak) ondorioz behar izan diren giza eta materialak bideen jaurtiketak nolabait arintzeko, egunetik egunera, kuoten barreraren diru portzentaia urria goa delarik.

Egiazteketak honek, diruzaintza arduradunengan barneko disziplina sorra razi behar du, bere garaian azarri eta egun indarrean dauden zuzenketak neurriak ongi beteaz, eta noski, presupostuen defizitak hartzen ari den itxura ikusirik, diru iturri berrien aurkikuntzari garrantzia emanaz; aha lezko irtenbideen artean, ez genuke 87-ko Urtarrileko kuoten igoerarik baztertu behar.

Bestalde, SN-ak arduraduna aurrean duelarik, Sindikatoaren ekonomi arazoak ikuspegi nazionaletik heltzeko aurrerapausu garrantzitsua eman duela uste dugu.

Hezketa

Zailtasunez, kausiera eta hutsegitez, lehenengo aldiz, Hezketa komisioak koordinakuntza Nazionala eta batez ere sindikatu osorako proiektape naren bila dabilela uste dugu.

Agian astiroegi, eta efikazi maila ezberdinetan, herrialde bakoitzean komisioaren egiaztatze maila ezberdinak direla medio, baina SN-ak behinbetirako egiztatze prozesua hasi dela uste du.

Ikastaro politiko-hezketazkoek, borondate onez garatuak, onuragarriak izan arren, jarraipenik eza, jendetorrera eta agian pedagogia egokirik eza nabarmendu dute, egituraketa osoan efikazia erreala izan dezaten.

Jasotako esperientziak (oinarrizko zerbaitekin abiatuak: militante baten hezkuntza, norberaren interes eta sindikatuak ezarri ditzakeen bideen fruitu da.), hezkuntza indarra elkarrelerlazioaturizko zenbait mailetan ezartzea eskatzen du: behar diren gailu teoriko eta pedagogikoak ezarriaz baliaraz hezketa arduraduna finkatu, hezketa era ezberdinak sortu (koadroak, ordezkariak, ..) sindikatoaren arlo honetan lagun dezaketena NAEM-eko jendearekin hitzeginaz, ...dira adibidez, Hezketa komisio Nazionalak arduraz, atxiki beharko dituen puntuak.

Aipamen berezia merezi dute, planteiatu den eta SN-ak bereganatu duen koadro politiko-sindikalak sortzeko ikastaro INTENSIBOAK egitearen beharra, bai hezkuntza politiko mailan eta baita mundu sindikal konplexuaren ezagutza zehatzean, bada garaia neurriak hartzeko.

Propaganda

Komisio hau izan da jaurtikitzen lan gehiena eman duena, SN-ko partaide betek dedikazio osoa ezin eskeintzearen ondorioz lehenetik (bere lantegi ko "birmoldaketa"-k jaten bait zion denbora), eta dinamika berezi baten ezaren akatsez gero.

Gure propaganda organuaren periodozotate falta (3 Iraultzen 11 hilabeteetan), bertako artikuluan defasea, Euskarak dagokion lekua ez izateak, egituraketa ezberdinetan Propaganda arduradunen behin-behineko egiaztaketa, propaganda komisioaren ideia propiorik eza, ...nabarmenak izan dira azken hilabeteotan.

SN-ean sortutako "arazo" hauek, herrialdeetara ere iritxi dira, non propagansa ZABALKETA hutsera mugatu bait da, hau izanik, efikazia maila Nazionalan galerazi duen OZTOPO edo HUTSEGITE bat.

Hauteskunde Sindikalen hurbiltasuna eta aldizkako IRAULTZEN-a ateratzeak, komisioren behin-betirako egiaztatzearen epe mugaezina EMATEA bultzatzen du, SN-an soilan ez ezik, Sindikatoaren egitura guztietan "sentituko" delarik.

Prentsa

Errepika ezinezko kasu bakar bat ezik (SN-ak jakin gabeko Administralgo ko LAB-en prentsaurrekoa), aski koordinakuntza egon dela esan behar da, sindikatuak behar isladapen egokia izan ez arren.

Gure "ixilaldiak" edota EGIN-eko komunikatu soilak, politika-sindikalarazoetatik at dagoen sindikatu baten antza ematen digute. SN eta herrialdeetatik hasiaz, komunikapen bideetako gure agerpenen ikerketa zehatza egin behar dugu, egunero Euskal Herriko lantegietan adierazten dugun gorako inzidentzia bultzatzeko.

Hitz batetan, asko hobetu arren, SN-a oraindik ez dela dagokion mailara igo deritzogu.

Nazioarteko harremanak

Oraindano, harreman internazionalak, INTG-rekikoak ezik, noizbehinkakoak zirengienetan erakunde arteko materiala elkartrukatzeko hutsera mugatzen zirenak.

Arlo honetako lana, zaila da, aurrerakuntzak geldiak dira, eta hutsegiteak pikutara bidali dezakete urteetako lana, NAEM osoak jasan ahal duela rik ondorioa. Horregatik, eta hutsegiteak edonork egin ditzakeela kontutan izanik, ahalik eta gutxien izaten saiatu behar dugu, egin ahal izatearen, arrazoi taldeko gaiezatasuna izango delarik soilik. Ezin dugu, militanteen norberregisako ekintzek (arduradunekin hitz egin gabe), munduko in tentziorik onenean baina egoera konkretuaren ez jakintasunean, gure erakundea zalantzan jar dezan utzi; eta ondoioz NAEM-ak atzerakadarik jasan. Bide honetan, gure erakundea erabat kontzientziaturik dagoela, ekintza hauek era "SUPERZENTRALIZATUAN" egin behar direlaren ondorio borobilera iritsi gara.

Blokearen osotasunetik datozten, Nazioarteko harremanei buruzko orientabideek lan jarraikor, iraunkor, sakon eta disziplinatua egitera bultzatzen gaituzte.

LABURPEN OROKORRA ETA ORIENTABIDEAK

Lesakatik hona ezarritako erreflexio denbora, SN-ko homogeneizazio eza rengatik batizbat, baldintzaturik eta egiaztaturik dago; hau, lan eskema eraginkor batengatik (eztabaidatu eta bozketak) ordezkaturia izan da baina bide batez "hotzagoa" era bai arazo "gatazkatsuetan" sakontze ezarengatik. Haseran esandakoa errepikatuaz, koexistentzi hau ELKARRIZKETA eta UN-k era bakitako akordioak beteaz konponduko dira. Hitz bitan, hau, "transizio" aroa dugu non oraindik, kontraesanen eraginek zuzenean edo zeharki SN-a erasotzen bait dute.

Hau garrantzitsutzat joaz, ekintza partzialen (komisiak) eta SN-ren oro korren gehitzea nabari dugu, aurreko fasearen ondotik; hau denerako garrantzitsua da erakundearen osotasunak (Herrialde Sekretaritzak eta Bailarakoak) Sindikatoaren ekintzen kontrola eramatea, kritika konstruktibo eta proposamenak eginaz, edozein organutik SN-a barne, egiten diren hutsegiteak estankatuko dituen "pasibitate" batez narraztutzen ez utziaz.

Bestalde, Lesakako erabakien ondorioz sortu zen izpirituari jarraituz, SN-ak bere egungo konposaketa kopuru eta erresponsabilitate (6 kideetatik, 5 "liberatuak" dira) ongi dagoela ulertzen du, lehen aipatutako arloetan gehiago sakondu behar bada ere.

Hutsegite, uztasun, ezgaitasun, ... Prehauteskunde gargarai hau "galbanizatuko" duen dedikazio inpultso batez heldu beharko dira; bai komisiotan eta baita SN-aren osotasunetik, funtsezkoa da gure erakundeari dedikazio gehiago ematea, honek Bloke eta NAEM-arenganako "aislamendurik" suposatzen ez duelarik.

Ondorengo hilabete hauetarako SN-aren funtsezko lanen artean lirarteke, komisioren garapenetatik at:

- Eusko Jaurlaritzaren Jaurtikitze egitasmo eta Nafarroako Foru Aldundia-
ren egitasmoek (SORENA) euskal langileei egiten dien eragin zuzena eta
desgaste politiko arloan egin dezakegun lanaren aurrean interbentzio
egokiaren antolaketa.
- UN-n zehaztuko diren hauteskunde sindikalei buruzko hildo orokorrak ga-
ratuko dituen programaketa teoriko-praktikoa egin, lurralde eraketak,
sindikatoaren erronka garrantzitsu hau heldu dezaten bultzatuaz.
- LAB-entzat bereiziki adierazgarriak diren arloetan egin esfortzua, KAS
eta NAEM-ari programaketa orokor eta bereziei buruzko aportazioak emate-
ren hauteskunde orokorren inguruan, argi geratuaz beti, erakunde barne-
ko tratamendu ahalik eta zabalaren eta kontrastatuena ematearen beharraz.

- Gobernu espainol eta frantsesaren errepresio militar eta administrari
espiralaren aurrean errefuxiatuek jasaten ari diren egoeraz, langilegoa
ren artean zabalkunde eta informazio lan zabal bat garatu: honek LAB be
zala, zehaztasun espezifikoa behar du, arazoari buruz Blokeak har ditza
keen erabakiekin batera.